

TXEKIAR ERREPUBLIKA

■ Sozialdemokrazia
faborito
hauteskundeetan

ATZO eta gaur hauteskunde orokorrak egiten ari dira Txekiar Errepublikan. Zortzi milioi lagunek izango dute bozkatzeko aukera. Inkesten arabera, Milos Zemanen Alderdi Sozialdemokrata da faboritoa, baina alde txikia aterako dio Alderdi Demokrata Herritarra eskuinekoari. Beraz, koalizio gobernu izango da ziurrenik Txekia gidatuko duena. Litekeena da sozialdemokratek Erretiratuen Alderdiarekin eta demokristauekin osatzea Gobernu, eta, horrez gain, Alderdi Komunistaren babes jasotzea. X

ETIOPIA-ERITREA

■ Afrikako hainbat
estatubururen
bitartekaritzak
porrot egin du

AFRIKAKO hainbat herrialde-tako lehendakari eta diplomatikoak Etiopia eta Eritrearen arteko negoziazioak abian jartzen ahalegindu dira, baina saio horrek porrot egin du. Izan ere, Etiopia ez dago prest elkarrizketetan hasteko, harik eta Eritreak tropak maiatz hasieran zituen lekura erretiratu arte. Eritreak, berriz, negoziazioak hasi nahi ditu soldaduak erretiratu aurretik. Bi herrialdeek tinko eusten diete beren jarrerrei, eta, ondorioz, Burkina Faso, Zimbabwe, Ruanda eta Yibutiko estatuburuen bitartekaritza alferrikakoa izan da. X

KANPUTXEA

■ Khmer Gorrietako
buruzagi bati
barkamena
eskaini diote

BESTE bi buruzagi entrega-tzearen truke, barkamena eskaini dio Kanputxeako Gobernuak Khieu Samphan Khmer Gorrietako buruzagi politikari. Ta Mok jenerala eta Nuon Chea, aipatu gerrillako bi buruzagi nagusiak, non dauden salatze eskatzen diote Khieu Samphan. Orain arte, Khmer Gorrietako hainbat buruzagi damutu amnistiatu ditu Gobernuak. X

E E B B

■ Sute handiak izan
dira Floridan

BILL CLINTON EEBBetako lehendakariak hondamendi inguru izendatu zituen atzo Florida estatuko zortzi konderri, maiatzaren amaieraz geroztik sute izugarriak jasan dituztelako. Milaka hektarea suntsitu dituzte sute horiek, etxe ugari kiskali eta milaka lagunek aldegin behar izan dute beren etxeetatik. Suteak maiatzaren 25ean hasi ziren. X

Kubako hegazkinek lehen aldiz zeharkatu dute 40 urtetan EEBBetako aire eremua


Washingtonek azpimarratu du ez duela aldatu Karibeko uhartearekiko politika

Cubana de Aviacion aire konpainiako hegazkinek EEBBetako aire eremua zeharkatu dute lehenengo aldiz 40 urtetan. Kubak orain bi urte salatu zion Abiazio Zibilerako Nazioarteko Erakundeari ezin zela EEBBetako aire espaziotik igaro, eta erakunde horren bitartekaritza eskertzen eman dute baime-na EEBBek.

Agentziak / Washington

KUBAKO hegazkinek 40 urtetan lehenengo aldiz zeharkatu zuten atzo EEBBetako aire eremua. EEBBetako Estatu Departamentuak aste honetan ziurtatu zuen Karibeko uharteko hegazkinek EEBBak zeharkatu ahalko dituztela Kanadarako bidean. Cubana de Aviacion aire konpainiako hegazkinek Kanadara bi bidetatik joateko aukera dute, eta aire nabigaziorako ohiko zerbitzuak jasoko dituzte. Gainera, EEBBetako aireportuetan lur hartu ahalko dute baldintza meteorologikoak kaskarrak badira.

Atzora arte ezinezkoa zuten EEBBetako aire eremutik igarotzea. Kanadak eta Kubak 1944. urtean hitzartu zuten aire trafiko askerako nazioarteko akordioa, baina elkarren arteko harreman diplomatikoak hautsiz geroztik elkarri debekatu zioten aire espazioa zeharkatzea. Orain arte, EEBBetako hegazkinak Kubatik igarotzen ziren Miami (Florida estatua) Hego Amerikara joateko; eta Karibeko uharteak urteko hamalau milioi dolar jasotzen zituen trukean, iturri batzuen arabera. EEBBek, ordea, ez zieten inola ere baimentzen Kubako



Kubatar bat protestan EEBBek uharteari ezarritako bahimenduaren aurka

XOUSE SIMAL

hegazkinei aire eremu estatu batuarra zeharkatzen. Kubako hegazkinek Atlantikoko kostatik hartu behar zuten bidea Montreal eta Torontora joateko, eta, horrek, erregai gastu ikaragarria ekartzen zien.

Abiazio Zibilerako Nazioarteko Erakundea bitartekari • EEBBetako Estatu Departamentuak argi adierazi zuen baimen horrek ez duela ezertan aldatuko Washingtonek Habanarekiko duen politika. «Erabakiak ez du esan nahi EEBBen Kubarekiko politika aldatu egin denik. Kubatik Kanadarako zuzeneko hegaldiak

errazteko baino ez da». Estatu Departamentuak esan zuen Washington betetzen ari dela Abiazio Zibilerako Nazioarteko Erakundeari (AZNE) emandako hitza.

Kubako hegazkinek EEBBetako aire eremua zeharkatzeko akordioa AZNErekin negoziatu zuela azpimarratu zuen Washingtonek, eta ez Kubarekin. «EEBBek segurtasun nazionalaz dituzten kezak aintzat hartuta negoziatu dugu». Trukean, Habana AZNEri hitza eman zion praktikan jarriko dituela aire segurtasunari buruz abiazio erakundeak exijitzen dituen konpromisoak.

EEBBetako Gobernuaren erabakiak haserretu egin zituen kongresukide errepublikanoak. Ileana Ros Lehtinen eta Lincoln Diaz Balartek (biak jatorri kubatarrekoak) kritikatu egin zuten erabakia. «Alde bakarreko kontzesio tamalgarria da, beharrezkoa ez dena eta gustu txarrekoa», esan zuen Diaz Balartek. Alderdi Demokratiko kongresukide batzuek, ordea, txalotu egin zuten. «Erabakia zuzena da; aire konpainia estatu batuarrek Kubako lurraldera joaten badira, onuragarria da Kubako hegazkinek ere aukera bera izatea», adierazi zuen Jose Serranok. X

JORGE SILVA / AFP



Chiapasko egoera salatu dute milaka lagunek

Hainbat gizarte mugimenduk, sindikatuk eta giza eskubideen aldeko elkarteak antolatuta, Chiapasko egoera salatzeke protesta marxa egin zen herenegun arratsean Mexiko hiriburuan. Manifestariak giza eskubideak, batik batik indigenenak, ez direla errespetatzen salatu zuten. Halaber, San Andres de Larrainzarko akordioak betetzeko eskatu zioten Ernesto Zedilloren gobernuari, eta elkarrizketaren bidetik Chiapasko gatazka konpontzeko. Bestalde, Legebiltzarreko Adiskidetzeta eta Baketze Batzordeko (COCOPA) hamasei diputatuak Chiapasen dira Gobernuaren eskariz. Armada zapatistari Gobernuaren gutun bat helarazi diote, eta elkarrizketak berriro hasteko gonbita egin.